


DOSSIER DE PRESSE / PRENTSARAKO DOZIERA

CONFERENCE DE PRESSE LE MARDI 13 NOVEMBRE A 10 HEURES 30 AU MUSEE
BASQUE DE BAYONNE.

PRENTSARAKO KONFERENZIA. AZAROAREN 13a, GOIZEKO 10ak ETA ERDITAN,
BAIONAKO EUSKAL MUSEOAN.



EXPOSITION **MUGETAZ** ERAKUSKETA

ERIC DICHARRY

PRESENTATION CARTEL PHOTOGRAPHIES / ACTIONS / VIDEOS TEXTE WORD WALL

AURKEZPENA KARTELA ARGAZKIAK / EKINTZAK / BIDEOAK TESTU WORD WALL

WORD WALL. Urriaren 31-tik azaroaren 15a arte. WORD WALL. A partir du mercredi 31 octobre et jusqu'au 15 novembre 2012.

Exposition MUGETAZ du **15 novembre 2012 à 19 heures** (performance et vernissage) au 6 janvier 2013 au Musée Basque de Bayonne. **2012ko azaroaren 15etik (19:00etan** performanза eta hasiera ekitaldia) 2013ko urtarrilaren 6ra arte, Baionako Euskal Museoan.

PRESENTATION

Eric Dicharry est chercheur en anthropologie, auteur et artiste contemporain. Après avoir soutenu sa thèse à l'Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales de Paris en 2009 sous la direction de Daniel Fabre, il a obtenu plusieurs prix et bourses de recherche. Au cours de ses recherches, il a travaillé sur les mascarades en Soule, le rire des Basques (Fondation Barandiaran), la fête et l'art contemporain au Pays basque, l'écologie de l'éducation et l'improvisation versifiée (Eusko Ikaskuntza).

<http://www.facebook.com/eric.dicharry.9#!/events/293571337425820/>

<http://ericdicharry.hautetfort.com/>

EricDicharry@gmail.com / +33 (0) 615 959 217

L'exposition au Musée basque de Bayonne se veut une exposition **interactive et participative** avec le projet **WORD WALL** et la performance du 15 novembre 2012 à 19 heures. Elle se veut également une réinterprétation de l'espace/temps basque. Constitué d'un mur de mots (word wall), d'une installation constituée par 5 haches, de photographies et de deux vidéos elle interroge les limites. Les photographies exposées rendent compte d'une action réalisée sur la côte basque. L'objet de l'exposition : confronter le visiteur avec la proposition spirituelle du sculpteur préhistorique des cromlechs. L'offre artistique est contenue dans l'idée de la traversée du temps. En effet, les haches renvoient non seulement à l'espace circulaire délimité par les bergers mais aussi à cette dimension spatiale préhistorique. La circularité renvoie non seulement aux pratiques du XXème siècle mais aussi à celles préhistoriques pratiquées il y a de cela 4000 ans. Ainsi la sculpture se veut une possible traversée dans le temps. Un lien entre le *hic* et *nunc* et l'ailleurs et l'autrefois.

AURKEZPENA

Eric Dicharry antropologiako ikertzailea da, egilea eta artista garaikidea. 2009an Daniel Fabrerenguzendaritzapean Pariseko Gizarte Zientzietako Goi Ikasketako Eskolan tesia aurkeztu eta gero, ikerketarako sari eta laguntza zenbait eskuratu du. Ikergaien artean, besteak beste, honako hauek izan ditu: Zuberoako maskaradak, euskaldunen irria (Barandiaran Fundazioa), Euskal Herriko besta eta arte garaikidea, hezkuntzaren ekologia eta bertsolaritza (Eusko Ikaskuntza).

Baionako Euskal Museoko erakusketak euskal donbora/espazioaren berrinterpretazio bat egiten du. Bost aizkorak, argazkiek eta bi bideok osaturik, mugei buruz galdegiten du. Erakusgai dauden argazkiek euskal kostaldean egin akzio baten berri ematen dute. Erakusketaren xedea: historiaurreko harrespilen egilearen proposamen espirituala eta bisitaria buruz buru paratzea. Denbora zeharkatzearen ideia biltzen da proposamen artistikoa. Izan ere, artzainek mugatu esparru biribila ez ezik, historiaurreko dimentsio espazial hura ere ekartzen dute gogora aizkorek. Biribiltasunak ez du soilik igortzen XX. mendeko praktiketara, baita duela 4.000 urte egiten omen ziren historiaurrekoetara ere. Hortaz, denbora zeharkatzeko bide bilaka daiteke eskultura, *hic* eta *nunc* arteko esteka, bestaldekoaren eta behialakoaren arteko lotura.

<http://www.facebook.com/eric.dicharry.9#!/events/293571337425820/>

<http://ericdicharry.hautetfort.com/>

CARTEL

Claude Labat dans son ouvrage intitulé *Libre parcours dans la mythologie basque* rappelait que la parcelle de terrain dévolue aux installations pastorales - cabane, parc pour la traite et les soins, enclos pour rassembler les bêtes durant la nuit – était délimité d'une façon simple et rustique. Au 17ème siècle selon le géographe Théodore Lefebvre : « un berger lance une hache en quatre directions opposées en forme de croix (les points cardinaux) et ces points d'atterrissage de la hache marquent les bornes du terrain de parcours affecté au cayolar ». En Navarre souligne Claude Labat « une pièce d'archives précise que cet espace devait avoir une forme circulaire parfaite selon les règles de la géométrie, et avec en son centre une borne enfoncée sur un tas de cendre ; on l'appelle d'ailleurs *hautsarri* (*hauts* : cendre et *harri* : pierre). Etrange similitude avec les cromlechs de la protohistoire dont la ciste centrale abrite les cendres du défunt ! Ainsi à la différence du cayolar, l'espace où vivent et travaillent les bergers n'a pas le même statut que le cayolar. Toujours selon Claude Labat « le cayolar n'est pas un mot d'origine basque mais occitane et sans doute latine. Il s'agit d'un terme juridique repris par la Coutume de Soule au 16^{ème} siècle, pour désigner « le parcours », c'est-à-dire la zone de paturage, attribuée à un berger (ou un groupe de bergers) en montagne. Un cayolar n'est donc pas une construction ; la cabane des bergers est appelée *olha* ou *etxola*. Le sol étant traditionnellement considéré comme propriété commune, le « parcours » ou cayolar n'est jamais donné, mais attribué ; on ne peut ni le vendre, ni le fermer. Si les bergers ne l'utilisent pas, ne serait-ce qu'une seule année, ils perdent leurs droits sur cet espace. Le système du cayolar est également connu sous les noms de *sel*, *saroi*, *sarobe*, *korta*, *gorta* et on le retrouve ailleurs, par exemple dans les Asturies et en Cantabrie. » (Labat, 2012 : 158)

La petite hache domestique peut-être considérée comme un phylactère, c'est à dire un emblème sacré, dans ce cas protecteur de la tombe. Le cercle est lui aussi prophylactique; il protège, qu'il soit enclos circulaire autour des tombes de l'Age du fer et du Bronze, ou cercle magique dans l'antiquité Gréco-Romaine. Le cercle, environnant la tombe, empêche les vivants de venir profaner le domaine des morts ou au contraire, l'âme du mort de sortir du cercle et de troubler les vivants, l'une et l'autre hypothèse étant vraisemblables. Cette tradition semble appartenir, depuis le néolithique, au plus large fond commun. On ne peut éviter d'évoquer l'importance que revêt la hache dans le domaine pyrénéen et singulièrement en Pays Basque, ainsi :

- 1) les points d'atterrissage de la hache marquent les bornes du terrain de parcours affecté au cayolar
- 2) le berger porteur de la hache sur l'épaule figure en tête de l'ancienne mascarade;
- 3) elle est signalée sur les stèles à personnages et les auges pyrénéennes du Comminges;
- 4) son utilisation comme **phylactère** est parfois toujours actuelle.

LABAT, Claude, *Libre parcours dans la mythologie basque*, Elkar, 2012.

DUVERT, Mikel, Lauburu (section "document"), n°002 espaces circulaires.

LEFEBVRE, Théodore, *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales*, Thèse de géographie, Paris, 1933.

KARTELA

Claude Labatek, *Libre parcours dans la mythologie basque* izenburuko liburuan, aditzera ematen zuen artzainen zereginendako lursaila –etxola, jezteko eta bestelako lanak egiteko artola, gauez ardiak biltzeko artegia– modu xume eta soil batean mugatzen zela. Théodore Lefebvre geografoak dioenez, XVII. mendean: “artzain batek aizkora bat lau aldeetara (puntu kardinaletara) botatzen zuen, gurutzea eginez, eta aizkora erori tokietan ezartzen ziren kaiolarra markatuko zuten mugarriak”. Nafarroan, Claude Labati jarraiki, “artxiboetako agiriek zehazten dute esparru hark eite biribil perfektua izan behar zuela, geometriaren arauak segika, eta haren erdian iltzatzen zela, errautsen gainean, zedarri bat, horrexegatik baita *hautsarri* (alegia: *hauts harri*) ere deitua. Bitxia da, gero, protohistoriako harrespilekin duen antza, haien erdialdeko zistan hildakoaren errautsak ehorzten ziren eta! Artzainak bizi diren eta lan egiten duten esparru hutsak ez dauka kaiolarraren estatus bera. Beti ere Claude Labati jarraiki, “kaiolar hitza ez da jatorriz euskarazkoa, okzitanierazkoa baizik, eta, ez baitik gabe, latinetik eratorria. Zuberoako Kostuman XVI. mendean aipatzen zen termino juridiko bat da, mendian artzain bati (edo artzain talde bati) dagokion ‘lantokia, hots, larratzeko eremua, izendatzen zuena. Kaiolarra, bada, ez da eraikin bat; artzainen bizilekua *olha* edo *etxola* deitzen da. Lurra tradizionalki jabego komunekotzat jotzen denez, ‘lantokia’ edo kaiolarra ez da nehoiz jabegoan ematen, ustiatzeko uzten baizik. Hortaz, ezin da saldu, ez itxi. Artzainek edozergatik baliatzeari huts egiten badiote, urtebetez baino ez bada ere, leku haren gaineko eskubide oro galtzen dute. Kaiolarraren sistema bestelako izenez ere ezagutzen da Zuberoatik at: *sel*, *saroi*, *sarobe*, *korta*, *gorta*, eta Euskal Herriatik kanpo ere kausitzen da; hala nola, Asturiasen eta Kantabrian.” (Labat, 2012 : 158)

Etzeko aizkora ttipia filakteriotzat har daiteke; hau da, enblema sakratutzat; kasu honetan, hilobiaren babesletzat. Biribila ere profilaktikoa da; babestu egiten du, bai Burdin eta Brontze Aroko hilobien harrespilen kasuan, bai Antzinaro greko-erromatarreko zirkulu magikoenean. Hilobia inguratzen duen biribilak galarazten du bizidunek hilen eremua profana dezaten, edo, alderantziz, biribiletik aterata hilek bizidunak asalda ditzaten, hipotesi bata zein bestea sinesgarriak dira eta. Badirudi Neolitikoz geroztiko tradizio honek bat egiten duela ondare-funts zabal-zabal batekin. Ez dago saihesterik aizkorak duen garrantzia Pirinioetan, Euskal Herrian bereziki, zeren eta:


- 1) aizkora erori tokietan ezartzen baitira kaiolarraren neurriak markatuko dituzten mugarriak;
- 2) lehengo maskaradetan, bizkarrean aizkora zeramala agertzen zen artzain bat;
- 3) Commingeseko harlauzetan eta pertsonaien hilarrietan agertzen da;
- 4) oraindik orain erabiltzen da **filakterio** gisa.

LABAT, Claude, *Libre parcours dans la mythologie basque*, Elkar, 2012.

DUVERT, Mikel, Lauburu ("document" saila), n^o002 e spaces circulaires.

LEFEBVRE, Théodore, *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales*, Geografiako tesia, Paris, 1933.

PHOTOGRAPHIES / ACTIONS / VIDEOS / ARGAZKIAK / EKINTZAK / BIDEOAK



Erakusgai paratu lau argazkiek (hemen duzuen diptikoa 800mmX120mm formatuan erakutsiko da) egindako akzio baten berri eman dute. **Azaroaren 15ean 19:00etan** bigarren akzio bat izanen da, pre formatu objektuen performancea bat, meta performancea bat, nolabait. Bigarren akzio honetatik abiatuta, bideo bat egingen da. Lehenago, segidako testutik abiatuta, jadanik eginiko bideo bat egonen da ikusgai.

Les quatre photographies exposées (vous avez ici un diptyque qui sera exposé au format 800mmx120mm) rendent compte d'une action réalisée. Le **15 novembre à 19 heures** aura lieu une seconde action qui sera une performance d'objets pré performés, une méta performance en quelque sorte. A partir de cette seconde action sera réalisée une vidéo. Une première vidéo aura été réalisée au préalable à partir du texte ci-après.

TEXTE : MUGETAZ

Aizkora. Google. 142 000. Proba. Helburua. Proba. Enbor. Proba. Zutik. Etzanda. Zutik. Etzanda. Proba. Kolpea nun jo. Hemen. Han. Hor. Joan. Etorri. Jin. Jun. Geroztik horrelako aizkorak hasi ziren erabiltzen. Gainezka bete zuten. Bete bete.

Bete aizkorak hartu eta ebakitzen hasi. Langile ona. Gehiago izan da. Aizkora. Apustua. Irabazi. Galdu. Irabazi. Izar handiena. Izugarritzko ikusmina. Zenbait urtez. Zenbat urte. Zenbat zen. Zenbat. Hor gara. Erdian. Ertzean. Barnean. Kanpoan. Berrikuntza izan da. Eta da. Eta. Berri. Berritz. Joan. Etorri. Jin. Jun. Erdian. Ertzean. Maila handiko aizkolari. Maila. Han. Hor. Hemen. Ikusle gutxi. Ikusle. Ni. Zu. Gu. Ikus. I. Ikusle. Hi. Ni. Biltzen. Bilduz. Bil. Hor gara. Hor dugu. Mailara iritsi. Saio. Saiatuz. Show. Begi. Aizkora. Begi. Aizkora 'ta begi. Eta. A. Eta Ko. Eta KO.

Indarka. Euskal Museoan. Baionan. Hemen. Aizkora hotsak. Argialdean. Erdian. Aizkorak. Ergatiboa. Mozteko. Osoki. Garai batean. Orain. Gero. Metalezko aho. Aizkora. Zenbait lekuetan. Aizkora. Sugerik gabeko aizkora. Gara? Urrezkoak. Urrezko aizkorak. Metalezkoak. Ezkoak. Baikorrak. Herri baikorra. Aizkora. Herriaizkora. Metalezko buruak. Cabezas metálicas. Têtes mécaniques. Mekanikoak. Aizkora-erakustaldi. Buruz. Buruz buru. Euskal kultura. Eskultura. Eskulturatzeko. Prest.

Bidaia bat. Kontakizun bat. Olerki bat. Testu bat. Hitz bat. Hizki bat. A. Aizkora. Aizkoraz. Aizkoraz aizkora. Nor zara? Ez zaitut ikusten. Ez zaitut ezagutzen. Ez zaitut ukitzen. Nor zara? Ahoz gora. Ahoz behera. Lan eta lan eta lan eta lan eta. Erreko nauzue. Erretzen nauzu.

Hautsa. Erdian. Hautsa. Zirkuluaren erdian.

Gaur. Hemen. Hic eta nunc. Ahozkatzen. Bihar, inork ez diezagun esan ez dugula erraiteko eskubiderik. Ez. Ahozkatu ez. Ez ahazteko. Metalezko ahodun. Aizkora baliatuz. Ez ahaztu. Ez. Kasik hamar minutu irauten ahal ditu probak. Arte probak. Artez so egileak berotzen dira. Ez, ez dira berotzen. Bai. Ez. Ozen. O. Bero. A. Ahotsa zen bero. B. Biharko. D. Deklinatu. E. Enbor. F. Frankeo.

Indarka. Euskal Museoan. Baionan. Hemen. Aizkora hotsak. Argialdean. Erdian. Aizkorak. Ergatiboa. Mozteko. Osoki. Garai batean. Orain. Gero. Metalezko aho. Aizkora. Zenbait lekuetan. Aizkora. Metalezkoak. Mekanikoak. Aizkora-erakustaldi. Orain.

WORD WALL



WORD WALL / MUGETAZ proiektuaren ideia.

Geure garaikideko gizartean nork hartzen du hitza? Herriaren hitza konfiskatuta izan da? Arteak herriari hitza emaiten ahal dio? Proiektu parte-hartzaile bat da, non jendeek hitzak atxiki ditzaketen nik izkiriatu MUGETAZ izenburupeko testu baten gainean. Asmoa da jendeek hitz bat hautatu eta horman atxiki dezaten. Asmoa da argazkia egin diezaioten beren buruari, eta beren buruen argazkia hitzarekin *facebook*en pausa dezaten. Ekinbideari eskaini hondartzan. Hitzen horma horretatik abiatuta antolatuko dut performancea, azaroaren 15ean 19:00etan.

<http://www.facebook.com/eric.dicharry.9#!/events/293571337425820/>

Le concept du projet WORD WALL / MUGETAZ.

Qui prend encore la parole dans notre société? La parole du peuple est-elle confisquée? L'art peut-il remédier à cette confiscation? L'art peut-il permettre à chacun d'avoir son mot à dire? WORD WALL / MUGETAZ est un projet participatif où les gens peuvent venir agraffer dans la salle *Argialde* du Musée basque de Bayonne des mots d'un texte intitulé MUGETAZ. L'idée est que les gens choisissent un mot et qu'ils l'agrafent au mur. L'idée est qu'ils soient pris en photo et que cette photographie apparaisse avec le mot qu'ils ont choisis sur *facebook* (sur la page dédiée à l'évènement) et sur le site du Musée Basque de Bayonne. A partir de ce mur de mots, sera articulée la performance du 15 novembre à 19 heures.

<http://www.facebook.com/eric.dicharry.9#!/events/293571337425820/>